

# adoptia

## Familiantzako Adopzio Ondorengo Gidaliburua



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES

# adoptia

Familiantzako Adopzio Ondorengo Gidaliburua

Etorri da dagoeneko, zer egingo dugu orain?

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA**  
*Gizarte Ongizateko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES**  
*Dirección de Bienestar Social*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

**Adoptia** : familientzako adopzio ondorengo gidaliburua : etorri da dagoeneko, zer egingo dugu orain? / [egilea, Agintzari Ekimeneko Kooperatiba]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm.

Contiene, además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en castellano: "Adoptia : guía de postadopción para familias..."

ISBN 84-457-2328-6

1. Adopción-Euskadi. I. Agintzari, Cooperativa de Iniciativa Social. II. Euskadi. Dirección de Bienestar Social. III. Título (castellano). 364.65-058.866(460.15)

Argitaraldia: 1.a, 2005eko iraila  
Ale-kopurua: 3.000  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila  
Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Egileak: Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba  
Area, 3. Konsultoria Soziala. Puente de Deusto, 7 - 48014 Bilbao  
Fotokonposizioa: EPS, S.L.  
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
ISBN: 84-457-2328-6  
L.G.: VI-270/05

## Aurkezpena

Azken urteotan, nazioarteko adopzioak gorantz egin du euskal gizartean. Izan ere, gero eta jende gehiagok hautatzen du bide hori familia berri bat eratzeko edo daukatena handitzeko.

Sarritan, familia adoptatzaileen kezka adopzio-prozesuaren hasierako fasea izaten da. Fase horrek derrigorrezko egokitasun-ziurtagiria lortu bitartean irauten du, eta, nolana ere, dena delako herrian espedientea tramitatu arte luzatzen da. Baina beste hainbeste arreta edo gehiago eskaini behar zaio adopzioaren ondorengo faseari, une horretan seguru asko arazoak sortuko baitira. Arazo horiek konpontzeko, familiak alde zuretik prestaturik egon behar dira, haurra iritsitakoan sortzen joango diren zailtasunei errazago aurre egite aldera.

Illo horretatik, oso pozgarri zait *Adoptia gidaliburu*a aurkeztea. Liburu hau oso lagungarri gertatuko zaie dagoeneko haur bat adoptatu dutenei edo haurra iristekotan dutenei, orientabideak ematen dituelako adoptatu ondorengo garaiari begira. Baliagarria izango zaie, orobat, aurrerago haurren bat adoptatzea pentsatu duten pertsoneri. Gidaliburuak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren diru-laguntza jaso du eta Agintzari izeneko Ekimen Sozialerako Kooperatibako kontsultore-talde batek egin du. Gidaliburuan, hezkuntza eta bizikidetzaren arloko zenbait esperientzia kontatzen dira eta zenbait giltzaren eta hezkuntza-estrategiaren berri ematen da.

Bilduma berean aurreikusita dago egile-talde berberak bigarren gidaliburu bat prestatzea. Lan hori komunitate-baliabideen profesionalei zuzenduta egongo da. Ondoren, hirugarren gidaliburu bat prestatu nahi dute, adoptatutako haurrei zuzendua. Horrela, halako ikuspegi oso bat eskaini nahi da adopzio ondorengo eremuari buruz, alderdi guztietatik gaiari helduz.

Espero dut *Adoptia gidaliburuak* lagunduko dizuela adopzioaren munduan sartzen, modu errealistan gainera, adoptatutako haurren beharrak asetzeko konpromisoa hartuz, azken batean, haurren zorientasuna lortzea izan behar baita adopzioaren ardatz nagusia.

JAVIER MADRAZO LAVÍN  
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua

## Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena eta ongietorria</b> .....	7
• Zenbat ume adoptatu, zenbat familia eta adopzio familia .....	8
• Bestelako famili bizitza .....	9
• Harrera eta elkartzea .....	10
• Ez dakigu ezertxo ere. Ezkutupeko izendapena .....	11
<b>2. Abiagunea-Integrazio prozesua</b> .....	12
• Bizimodu aldaketa: “aurrerantzean dena izango da bestelakoa” .....	13
• Ume adoptatua bere “motxila” eta guzti dator .....	14
• Aldatzeko eta egokitzeko gaitasun handia .....	15
• Hasieran heldutasunez portatu da, laguntzaren beharrik ez balu bezala .....	16
• Badakit zerbait gertatzen zaiola baina ez dakit hori neurtzen, ezta bere eboluzioa baloratzen ere .....	17
• Okertzea, zuzentzearen seinale .....	18
• Heldutasun eskaseko jokaerak, nolabaiteko konponbide .....	19
• Suge eta amonen sorgintzailea. Sinpatia “unibertsala” .....	20
<b>3. Jokaera eta jokabide normalak, heziketarako klabeak</b> .....	21
• Umeen jokabide normalak, adopzio familiek diotenez .....	22
• Beldur, izu eta ikarak. “Noiz itzuliko nauzue hara?” .....	23
• Gezurretan ari da ala errealitateaz bestelako kontzientzia du? .....	24

• Gauzengatiko interesik ez .....	25
• Ona izatea ez da erraza, ahaleginak eginda ere .....	26
• Kanpo-kontrola eta auto-kontrolaren arteko txango luzea .....	27
• Eskolako kexa etengabeak. Etxeko lanekin bueltaka egunero .....	28
• Kontuz familiaz kanpoko arrazakeriarekin .....	29
<b>4. Adoptaturiko haurra hezteko estrategiak .....</b>	<b>30</b>
• Nerabearora iritsitakoan... zer? .....	33
<b>5. Adopzio-gurasoentzako bitartekoak .....</b>	<b>34</b>
• Irribarre eta malkoak: argi-itzalen arteko hezkuntza .....	35
• Onespina eta gaitzespenaren artean. Adopzio-gurasoak, susmagarri .....	36
• Auto-laguntza: ezinbesteko baliabidea .....	37
• Profesionalen laguntza .....	38
• Batasunak, indarra. Adopzio-familien elkarreak .....	39

# 1. Aurkezpena eta ongietorria

## Gidaren aurkezpena

Dagoeneko seme-alaba adoptaturik duzuen edo aurki hartuko duzuen gurasooi zuzenduriko gida honek adopzio munduan senide izango dituzuen haur horien premiekin konpromisoz eta, hitz batez, era errealista sartzen lagundu nahi zaituzte.

Gidaliburuaren edukiei loturik, hiru mezu-mota erabiltzen dira: lekukotasunak, azalpenak eta hezkuntza-funtsak. Lekukotasunetan, familien eta adoptatutako haurren esperientziak eta bizipenak jasota daude. Bestalde, azalpenek eta hezkuntza-funtsek argibide zehatzak ematen dituzte aurkeztutako egoerei buruz, gidaliburua hau irakurterraza egin nahirik betiere, guraso adoptatzaileei hezkuntzan laguntzeko asmoz.

## Ongietorria

Paper betetzea eta bueltaka ibiltzea amaitu egin dira (halako batean amaitu ere!), oparo izan dira eta etxean daukazue seme edo alaba berri hori. Prozesu gogorra izan da, inondik ere, itxoite, geroratze, luzakizun eta tentsioz josia. Ia erabat ezezagun duzuen ume horren adopzio lana oraintxe hasten da, ordea. Enigma da, ustekabekoak bata bestearen atzean gertatuko dira aurrerantzean. Pozarren zaudete, ilusioz beteak, baina beldur pittin bat ere sentitzen duzue. Handia da erantzukizuna eta hamaika kezka dabilzkizue burutik, bueltaka. Normala da hori.

Prozesu berri honetan haur horrek izango dituen bizipen mesedegarriak iraunkor bihurtuko direnez, maitasun eta babesaren subjektu sentitu ahal izango da.

“Aldakuntza noiznahi egin ahal izateak esan nahi du pertsona behin ere ez dagoela gertakari mingarrietatik erabat babestua eta, gainera, behin ere ez dagoela gertakari onuragarriei ateak zeharo itxita”. John Bowlby, 1988, David Howeri hartua, in *La Teoría del vínculo para la práctica del Trabajo Social*.

## Zenbat ume adoptatu, zenbat familia eta adopzio familia

1. Euskadiko Autonomia Erkidegoan 1.900 adopzio familia dira, guztira 2.200 haur dituztenak; hauen hiru laurdenak estatu espainiarrekoak dira; gainerakoak, atzerrikoak.
2. Geroz eta zabalagoa eta herrialde ugariagotakoa izateko joera agertzen du adopzioak.
3. Europa, Asia eta Latino Amerika dira nazioartetik adoptaturiko ume gehienen sorterriak.
4. Adopzioan aniztasun handia dago, era guztietakoak hartzen dira: jaio berriak, haurtxo txikiak, beste etnia batzuetakoak, anai-arrebak, lau urtetik gorako umeak... denetik.

Lurraldea		Jatorria		Sorterria		Sexua	
Araba	17 %	Estatala	26 %	Amerika	26 %	Mutikoak	37 %
Bizkaia	50 %	Nazioartekoa	74 %	Europa	48 %	Neskatxak	63 %
Gipuzkoa	33 %			Asia	25 %		

Guztira: 2.224 haur eta 1.900 Familia



## Bestelako famili bizitza

- ▶ *Azkenean, behar bezalako familia gara.*
- ▶ *Adopzio-familiak gainerakoak bezala gara, guraso eta seme-alaba normalak.*
- ▶ *Biologikoak izan, adopziozkoak izan, famili lokarrietan ez omen dago alde handirik.*
- ▶ *Seguruenik, egokitasun-azterketa gainditu behar ez dutenek baino guraso hobekak gara. Seme-alabak ahalegin gutxiago eginik ekarri dituzte besteek.*

1. Noski, familia normala da, funtzio berberak eta eboluzio fase eta gorabehera berdintsuak dituena baina, aldi berean, bestelako famili bizitza egiten da hor, berariazko ezaugarri eta bizipenek hala ondorioztatuta.
2. Adopzio-familiak gainerakoak bezain funtzional eta egokiak dira eta, abandonatzea ez ezik, tratu txar edota instituzionalizazioa ere jasan duten umeen premiak asetzeko prest daude.
3. Bizi-eskarmentu, eginbehar, ahalegin, erronka eta zailtasunei dagokienez, gainerako familiek gainditu behar ez dituzten eragozpen batzuk topatzea inpliketzen du adopzioak:
  - Egokitasun-kudeaketa eta tramiteak.
  - Abandonatze-gertakaria dela medio, haurrak nozituriko kalte, ondore, atzerapen eta trastornoak konpondu beharra.
  - Adoptatua dela aitortu behar izatea.
  - Integratze eta egokitze fasea, umearen eta gurasoen aldetik.
  - etc.
4. Jakina, honelako familiek eta bestelakoek badituzte, nola ez, pare-pareko zeregin eta lan asko.

- ▶ Adopzioa aparteko bizipena da, harriduraz bizitzen dena.
- ▶ Adopzio-familia bestelako famili bizitza bat da, baina ez da gainerakoak baino hobe edo txarragoa.
- ▶ Bestelako famili bizimoduaren antzerako bizipen asko ditu, baina gainerako familiek zeharo ezezaguna duten oztopo, prozesu eta zailtasun batzuk bere-bereak ditu honek.

## Harrera eta elkartzea

- ▶ *Estreinakoz ikusi genuenean bihotz taupadak indar biziz aditzen genituen, hezitzaileak ekarri zuen eskutik eta, ikusi gintuenean eskua eman zigun. Handik une batera gurekin jolasten ari zen, aspaldiko lagunak bagina bezala.*
- ▶ *Ene bizitzako unerik latzenetako bat izan zen; ez nuen uste horrela izango zenik. Hezitzaileak besoetan zekarren umetxo ikaratua utzi zigun; haurtxoak, negar batean, gurekin ez zuela, nahi inola ere. Nekeak ahitu arte ez zen gelditu, oihuka eta hankei eraginez jardun zen.*

1. Zuen seme edo alabaren bila joan, jaso eta hartzea ez da espero bezala gertatu; bazenekiten, besteek esanda, zertan zen hori, baina gauza bat da besteen esana eta beste bat zuk bizi duzuna.
2. Herrialde batzuetan eta babes-sistema batzuek bideratuta, umea bizimodu berrirako prestatzeak garrantzi handia du. Lehen topaketa hori eskarmentu samurra izan dadin prestatzen dute haurra pixkanaka; horrela, guraso berriak iristean, txikia motibatua dago, badu aita-ama horien berri eta familia eduki nahi du. Profesional arduradunek, gainera, topaketa egiteaz aholkatu dute familia.
3. Beste hainbat herrialdek, aldiz, ez dute adopzioan eman beharreko umeak prestatzeko bitartekorik, ezta ahalbiderik ere. Haurrei ez zaie informaziorik ematen, ez dituzte behar bezala prestatzen eta inortxok ia ezer ulertzeke egokitzen da topaketa. Zenbaitetan, bera ordura arte zaindu zuen helduak abandonatu duen sentsazioarekin bizitzen du une hori umeak, beldur eta suminak itota dago trantze horretan. Eskarmentua mingarri dute adopzio gurasoek ere eta metaturiko itxaropenak, hein handi batean, lausotu dizkie lehen topaketa horrek.

- ▶ Zoazte prest, haurrak zeinahi erreakzio izan dezake eta.
- ▶ Eraman jostailu edo artekari gisako beste zerbait: pelutxezko panpina, adibidez, izua, arrabia, samurtasuna... xurgatzeko modukoa.
- ▶ Ez eskatu umeari maitasun-frogarik.
- ▶ Errespetatu umeak ezarritako distantzia fisiko eta emozionala.
- ▶ Ez ibili presaka.
- ▶ Ipin zaitzte haren mailan, elkarri aurrez aurre begiratzeko eran.
- ▶ Mintzatu goxo, apal, maitagarri, atsegin.
- ▶ Gogoan izan zuen segurtasun eta sendotasuna lasaigarri gerta dakizkiokeela.

## Ez dakigu ezertxo ere. Ezkutupeko izendapena

- ▶ *Adoptatu dugun umeaz ez dugu inongo informaziorik.*
- ▶ *Inortxok ulertzen ez duen osasun-txostena baizik ez digute eman; hainbat gauza, gainera, ez datoz bat paperean eta erreallitatean.*
- ▶ *Agian horixe da hoberena. Zenbat eta gutxiago jakin, hainbat eta hobeto.*

1. Adoptaturiko umeari eta bere familiari beren historiako daturik garrantzitsuenak ez ematea ohiko baina okerreko praktika da.
2. Zenbaitetan, umea umezurztegi edo beste toki publiko batean abandonatu dute gurasoek, inolako informaziorik uzteke.
3. Hori eskuarki gertatzen bada ere, ez luke horrela izan behar. Umeei jakiteko eskubidea zor zaie-larik, beren historia zaindu beharra dago, gerora nor diren, nondik datozen eta zergatik izan diren adoptatuak jakin dezaten.
4. Inolako informaziorik ez denean baduzue balizko datuekin historia osatzea; dena den, elementu hori txertatu egin beharko duzue, historia eta datu gabezia adieraztean. Erakutsi umeari zuen zori-gabea, bere historia ezin jakinaraz diezazueke eta; horren partez, ordain ezazue hutsune hori bes-telako historia osatzeko kontakizunen bidez.

- ▶ Adoptatu dugun umearen historia haren izaeraren jakinarazpenaren oinarria denez, beraren, bere jatorriko familiaren eta abandonatzearen arrazoien inguruko datuak eduki behar ditu.

## 2. Abiagunea-Integrazio prozesua

Adoptatu dituzuen umeeek zauri emozional larriak dauzkate. Zauri horiek famili bizitzan ondoreak utzi dituzte eta umeeek hartutako mina eta egonezin hori adierazteko jokaera aldrebesak agertzen dituzte batzuetan. Horrelako jokaerak zuzentzea ez da kontu erraza: kalte horiek aztertu eta konpondu behar dira, ezinbestez, eginkizun horri luzesten badiozue ere: umeeak nozitutako min emozionalaren intentsitatearen eta, bestetik, gurasoek estrategia eta baliabide egokiek baliatzeko trebeziaren arabera irauten dute prozesu horiek.



## Bizimodu aldaketa: “aurrerantzean dena izango da bestelakoa”

- ▶ *Ezer ez da lehenago bezala.*
- ▶ *Orain dena ematen diogu hari, geure buruarentzat ia astirik hartu gabe.*
- ▶ *Egun osoa korrika ematen dugu, atzera eta aurrera. Hau aldaketa!*

1. Zuen umearen hazkuntza bete-betean bizi duzue. Adoptatzen ez duten gurasoek pixkanaka bereganatzen dituzten trebeziak zuek egun batetik bestera ikasi eta praktikan jarri behar izan dituzue.
2. Umeak zuen denbora eta eskaintza guztiaren premia du; horrek, noski, zuen bizimoduko aztura batzuk aldaraziko dizkizue.
3. Arreta-gunea, hemendik aurrera, bera izango da.

- ▶ Beste gurasoek hiruzpalau urtetan bizi dituzten aldaketak zuek bat-batean onartu eta praktikan jarri behar dituzue, gelditzeke.
- ▶ Eman zeuen buruari tregua eta atseden txiki bat, tarteka.

## Ume adoptatua bere “motxila” eta guzti dator

- ▶ *Txiki-txikiak direnez, apenas dute oroitzen.*
- ▶ *Hasieran zerbait kontatzen bazuen ere, aspaldi honetan gaia ez du aipatu ere egiten: tokiak, pertsonak eta gertakariak nahasi egiten ditu.*
- ▶ *Hainbesteko eragina izan ote dezake iraganak oraino? Ez da ezertaz ere gogoratzen.*
- ▶ *Hobe eskarmentu txarrekin ahaztea.*
- ▶ *Batzuetan bere lehenaldiaz gauza ikaragarriak kontatzen ditu, oroitzen lausoak ditu.*

1. Haren historia abandonatzeak, instituzionalizatzek eta, sarri, tratu txarrek eta bizipen traumatikoek markatu dute. Biziera mingotsa, benetan.
2. Bizipen horiek umearen nortasunean, izaeran, jokamoldean, errealitatea hautemateko eran ez ezik, bere garapenean eta famili giroan ere izaten dute eragina.
3. Haren historiak utzitako ondorioen ordaintzak energia mordoak gastatzea aginduko die, bai umeari, baita familia osoari ere.
4. Aurretiazko historia horretako gertakariak funtsezkoak dira jakinarazpenari begira eta, batez ere, haren ondore, atzerapen eta trastornoak errazago ulertu eta lantzeko bidea erakutsiko dute.
5. Adoptaturiko umearen aurretiazko historiaren kudeaketa funtsezko elementua da ordaintza-lana burutzeko.
6. Ahanzturak, arazoak konpondu ordez, larritu egiten ditu eta umea lehen baino ahulago uzten du beti.

- ▶ Haren aurretiazko historiaren karga eta ondoreak alboratzea ez da bidezko.
- ▶ Egokiena, adoptaturiko umearen aurrekinak, kalteak, traumak eta bizipenak ahalik eta hobekien ezagutzea da.
- ▶ Historia horretan oin hartuta osatzen da jakinarazpena.
- ▶ Hori ez ezagutzea ez da inongo mesederik, eragozpen latza baizik.

## Aldatzeko eta egokitzeko gaitasun handia

- ▶ *Euskaraz eta espainieraz berehala ikasi du, biak batera, eta ulertu egiten zaio.*
- ▶ *Dena harrapatzen du begiratu batez. Berehala hartzen ditu tokiak eta pertsonak. Nahi duen guztia lortzen du. Bera da beti arreta-gunea.*
- ▶ *Dena miatzen du, mari-maisu samarra da.*
- ▶ *Umeez ikasteko sekulako ahalmena dute.*
- ▶ *Dena ukitzen du.*

1. Adoptaturiko umeen egokipen-gaitasuna handia bada ere, baditu mugak.
2. Aurrekoa baino askozaz ere hobeia izango den bizimodu berriari egokitu eta bertan integratzeko premiak umea ireki bihurtzen du; berehala zernahi ikasten du, bizimodu berri hori ulertzeko eta komunikatzeko lagungarri izango duen guztia, batik bat.
3. Bere garapenean, hiru eginkizun bete beharko dituzte, batera:
  - Hazi, garatu eta ikastea, gainerako besteek bezala.
  - Kultura eta familia berriari egokitu eta bertan integratzea.
  - Kalte, atzerapen edota trastorno emozional, kognitibo eta sozialak konpontzea.
4. Gainerako umeez ez dituzte horrenbeste ahalegin eta zeregin izaten.

- ▶ Zuen seme edo alabak egokitzeko gaitasun handia du baina, besteek ez bezala, baditu bestelako garapen- eta konpontze-zeregin batzuk ere betetzeko.
- ▶ Egokitze hori, guk espero baino gehiago kostatzen ari zaio.
- ▶ Berak ekarritako "motxila" antolatzea eta egokitzea ere lana da.

## Hasieran heldutasunez portatu da, laguntzaren beharrik ez balu bezala

- ▶ *Ume zoragarria zen.*
- ▶ *Iritsi eta berehala bera bakarrik moldatzen zen janzteko eta jateko; autonomia ikusgarria erakusten zuen, ume txikiagoez arduratzea gustatzen zitzaion.*
- ▶ *Esanekoa zen lehen, ez zituen oraingo haserrealdiak harrapatzen.*
- ▶ *Ba omen zekien guri nola atsegin egin.*

1. Eztei bidaian tratua eta harremana gozoak dira, umeak gurasoen aurrean atsegin agertu nahi du, aita-amek familian onar dezaten.
2. Eskaintzen dioguna miatu, arakatu egiten du umeak, toki seguruan dagoen egiaztatzeko; ez da fio gurekin, gutxien uste duenean guk ere abandonatuko dugulakoan dago.
3. Fase honetan “zintzo” portatu behar, helduei atsegin gertatu behar zaie.
4. Harremana sendotu ahala, umea helduez fidatuko da eta, konfiantza hori finkatuz doan heinean, bere egiazko barrua erakutsiko du, “benetako umea” agertuko da.
5. Abandonatzeak emozionalki zauritu duen pertsona da benetako ume hori.

- ▶ Ongi tratatzen dugunean, bere bizitzan, bere motxilan dagoena erakusten digu.
- ▶ Jokamoldea okertuz joango da, “benetako ume” hori agertuz.
- ▶ “Motxilan” dakarren ondoeza erakusteko modua du hori, guk konpon diezaiogun.



## Badakit zerbait gertatzen zaiola baina ez dakit hori neurtzen, ezta bere eboluzioa baloratzen ere

- ▶ *Badakit zerbait gertatzen zaiola baina ez nuke asmatuko hori baloratzen; lehenaldia izan ditzakeen ondoreek kezkatu eta izutu egiten naute.*
- ▶ *Nola baloratu eta neurtu umeak izan dezakeena, nolako pronostikoa du?*
- ▶ *Motxilan zer dakarren ez dakit, horrek kezkatzen nau.*

1. Haren berariazko premiak aintzat hartzeak bere posiziotik hazten laguntzen diogula esan nahi du.
2. Aurreko bizitzako kaltearen inpaktua hainbat faktoreren elkarreaginaren arabera da:
  - Lokarri afektiboaren kalitatea, umearen bizitzako lehen 12 hilabeteetan.
  - Tratu desegokien intentsitatea.
  - Abandonatutakoan, bera hartu zuen erakundearen kalitatea.
  - Zein adinetan adoptatua izan zen.
  - Afektiboki goxoak diren zaintzaileen presentzia.
3. Aurre eginez gero, atxikimenduzko trastornoak, gabezia eta lehenaldiko traumak egoki eboluzio-natuz doaz; umearen izaeraren, eskuragarri dauden laguntzako baliabideen eta berak abandonatzeari ematen dion adieraren arabera aldatzen dira.

- ▶ Umearen egoera ahalik eta garapen-ikuspegi gehienetatik ebaluatu behar da: fisikotik, psikologikotik, kognitibo eta intelektualetik, sozialetik.
- ▶ Bidezkoa balitz, kalteak profesionalen laguntzarekin ebaluatu beharko lirateke.

## Okertzea, zuzentzearen seinale

- ▶ *Ezin aurrera egin, askoz okerrago portatzen da orain hasieran baino.*
- ▶ *Harro portatzen da, lainerak hartuta.*
- ▶ *Aurka egiten zaionean sutan jartzen da.*
- ▶ *Pultsua egiten omen digu etengabe eta irabazi nahi du.*
- ▶ *Lehen ez zen horrela. Zigorrak lainerak onartzen ditu.*

1. Jokaera okertzea (amorraldiak, denari kontra egitea, desobedientzia, harrokeria, gezurrak, erasoak, etc) helduek gaizki ulertzen dute:
  - Hori, zerbait gaizki egin dugun seinale da.
  - Esker txarreko eta gaiztoa da.
  - Kalte egin nahi digu, ez gaitu maite
  - Gaizki doa hau, guk ez dugu balio honetarako.
2. Sortu duzuen konfiantza ikusirik, umeak bere ondoeza zuen baitan uzten du, konpon dezazuen.
3. Adoptaturiko umeak lehenaldian konpondu gabeko kontuak, emozioak, zauriak, “orok balio du” giroan ikasitako jokaera-ereduak orainaldiko harremanera dakartza.
4. Zuen harreman-eskaintzaren fidagarritasuna, erresistentzia eta jatorritasuna probatuko ditu.
5. Bera adoptatu duzuenok ez zarete ez bere bizitzarekiko haserrealdien sorburu, ezta helmuga ere; kexu horien hartzaile zarete, haren arrabia, beldurra, mesfidantza eta oldarkortasuna bideratzeko eta neutralizatzeko arduradunak.
6. Dagoeneko lokarria aintzat hartua diozue elkarri.

- ▶ Integrazio prozesua ondo doa, horrela da.
- ▶ Baliteke horiek une latz, ustekabeko eta biziak izatea.
- ▶ Pazientzia handiz jardun behar.
- ▶ Irmotasun eta goxotasuna, biak batera, erakutsi behar dira, geure burua seguru eta kontrolatuta: “Eutsi, heldu dagoenari”.
- ▶ Umeak zernahiren gainetik onartu eta maite dezagun premia du.

## Heldutasun eskaseko jokaerak, nolabaiteko konponbide

- ▶ *Ez aurrera egin, ez aurrekoan gelditu: atzera goaz ostera.*
- ▶ *Txiza (edo kaka) egiten hasia da orain.*
- ▶ *Zortzi urte dituela, anaia txikiaren biberoia uzteko eskatu dit.*
- ▶ *Parkean, ume txiki bat ikustean, liluratuta geratzen da.*
- ▶ *Ume txikia bailitzan, besoetan hartu eta zabuka egin dezadan nahi du.*
- ▶ *Ume txiki-txikia bezala portatzen da batzuetan.*

1. Lehenaldiak haurtzaroko hainbat premia asetzea eta bizitzaz gozatzea galarazi badio, hutsune horiek betetzen saiatuko da haurra: titia hartzea, haurtxo bezala onartua eta tratatua izatea, besoetan hartua izatea, amaren sabeletik ostera jaiotzea... dena musu truk. Bizi ez duenarekin egiten du amets, samintasunez.
2. Atzerako jokaerei ekiten die umeak, hutsuneak betetzeko; hori biziki osasuntsua ez ezik, biziki harrigarria gerta dakieke gurasoei.
3. Atzerako jokaeretarako itzulera horiek ez dira gertatuko bizitzako alor guztietan, ezta modu jarraituan ere.
4. Atzerako itzulera horiek aurrerakada emozionalak gertatzea laguntzen dute; kudeatu egin behar izaten dira, dena den.

- ▶ Lasai. Dena ongi doa.
- ▶ Umeak aurrera segitzen du.
- ▶ Atzerako itzulera horiek umei heldutasunik gabeko jokaerak leporatu gabe kudeatzen dira; areago, jolasaren bitartez. bideratu egin behar dira.
- ▶ Helduak adierazi behar du itzulera horiek egiteko une eta aldarte egokiak zein diren.

## Suge eta amonen sorgintzailea. Sinpatia “unibertsala”

Umea adoptatu dutenek eta ingurukoek haur hori oso lagunarteko ikusten dute eskuarki, txikiak erakutsitako etorri eta plazari esker egoera sozial berriei grazia handiz aurre egiten dienean. Hori, bizipen funtzionaltzat hartzen bada ere, sinpatia bereiztu gabearekin estuago loturik dago; ohikoena, ume txikiak pertsona ezezagunekin joan nahi ez izatea da, gurasoek bestelakorik adierazi ezean. Beraz, jokaera hori atxikimendu eskasaren agerpentzat jo dezakegu.


- ▶ *Normahirekin joaten da, ez du beldurrik, azkar asko bereganatzen du helduen arreta.*
- ▶ *Toki guztietan bihurtzen da denen erdigune, plaza gizon (plaza neska) da, goitik behera.*
- ▶ *Auzokoarenean sartu eta etxerakoan beti dakar gaileta, txokolate edo beste zerbait; sorgindua dauka auzoa; bestela portatzen da han, bai, etxean baino hobeto.*
- ▶ *Amonari nahi duen guztia ateratzen dio; gero, nik esaten dudan bezain ume zaila ez dela esaten dit amonak.*
- ▶ *Txikitan edonorekin joaten zen, erronka eginez bezala begiratzen zidan, erabakia berak hartua bazuen bezala.*

- ▶ Helduak eta egoerak “manipulatzeko” joera hori zuzendu beharra dago; distantzia egokienak ezagutu eta gehiegizko autonomiari uko egiten ikasi behar du umeak, guraso berriek ondo zainduko badute.
- ▶ Normalena, autonomia, lagunartekotasun eta etorri horiek apaltzea izaten da.

### 3. Jokaera eta jokabide normalak, heziketarako klabeak

Ondoren aipatzen ditugun jokabide guzti-guztiak ez ditu agertuko umeak; areago, agertzen dituenak intentsitate eta maiztasun desberdinekoak izango dira. Abandonatzearen, tratu txarren, traumen ondoreak era askotan agertzen dituzte umeek. Horrelakoekin bizitza egiaz zailagoa da eta zailtasun hori larriago bihur daiteke, umeak hazi ahala.

Abandonatzearen biktima izan den, baliabide gutxiko instituzioetan bizi izan den, oinarritzko gabeziak nozitu izan dituen umea adoptatzea premia bereziak dituen seme edo alaba famili giroan integratzea da.



## Umeen jokabide normalak, adopzio familiek diotenez

Ondoren aipatzen ditugun jokabideak adoptaturiko umeek maiz agertzen dituzte, bizitzan izaniko eskarmentuen ondorioz ahulezia nozitzen dutelako:

1. Haurtzaro eta nerabezaroran auto-kontrol alorrean zailtasunak erakusten dituzte, beren desira eta premiak berehala asetzeko nahi gorrien eraginez.
2. Alor batzuetan aurrera egiten duten bitartean beste hainbatetan gelditu egiten dira. Gauzez berehala ahazten dira eta sentimenduak errepinitu egiten dituzte. Eskarmentutik ikastea dezente zailago gerta dakieke ume horiei gainerakoei baino.
3. Frustrazioaren aurrean tolerantzia eskasa agertzen dute; ezezkoa edo “bai, baina gero” ez dute onartzen. Kritika ez dute erraz onartzen; batzuetan, begien bistakoa ere ez, eta, ondorioz, buru egiten diote.
4. Gauzengatiko interesik eza nabarmentzen dute, aise aspertzen dira zernahiz.
5. Beren buruaren okerreko pertzepzioa dute, beste umeak baino usuago jartzen dira arriskuan, arriskua bera hauteman gabe, min fisikoa sentitzen ez badute ere, hipertsensibilitatea agertzen dute.
6. Arretan, kontzentrazioan eta etekin intelektualean defizita agertzen du.
7. Arauak ez ditu erraz barneratzen. Gezurretan aritzeari, eraso egiteari eta antzekoei ez diete inolako baliorik aitortzen.
8. Errealitateaz zentzu urria dute: gaizki ulertzen eta interpretatzen dute, nahasketak eragiten dituzte, adiera bikoitzak ez dituzte ulertzen eta umore sen eskasa dute. Denbora (iragana, orainaldia, geroa) maneiatzean zailtasunak dituzte.
9. Ezezagunaren, ustekabekoaren, berri denaren aurrean beldur eta izua agertzen dute.
10. Harremanak instrumentalizatzen dituzte, pertsonak eta egoerak kontrolatzeko ahaleginak egiten dituzte, arreta etengabe bereganatzen saiatzen dira, beti-beti arreta-gune bakarra izan nahi dute.

## Beldur, izu eta ikarak. “Noiz itzuliko nauzue hara?”

Lokarri afektibo iraunkorrak finkatzeko gizakiak nozitzen duen premia da atxikimendua. Gurasoek eta umeak elkarrekiko atxikimendua sentitzen dute. Haurtzaroko lehen lokarri horren arabera (ama-haurtxoa), geroagoko lokarriak eta harreman sozialak egokitu beharreko erlazio afektiboaren barne-eredua moldatuko da. Segurantza handikoa edo gabekoa izan daiteke lokarri hori, oinarritzko premiak nola bete diren.

Abandonatzeak eta honen inguruko gorabeherek segurantzarik gabeko lokarriak dituzten umeak sorrarazten dituzte: haur lotsati, beldurti, itxi, mesfidati, ausartegi, oldarkorrak... Adoptatu duten gurasoek, umea tratatzeko moduari esker, segurantza gabeko lokarria seguru bihur dezakete; horrela, horrekin loturiko jokabideak pixkanaka zuzenduz joango dira, hainbat ezaugarrik iraun egingo duten arren prozesu latz eta luze horretan.

- ▶ *Alabak ezin du bakarrik lo egin, kosta egiten zaio lokartzea.*
- ▶ *Umea ahiturik amaitu arte, gauero-gauero dugu sesioa.*
- ▶ *Komunera joateko ere ez nau bakarrik uzten.*
- ▶ *Berria den guztiak beldurtzen du, jende guztiarekin oso-oso fidagaitza da.*
- ▶ *Eskolako lehen egunak negar batean eman zituen, bila joango ez nintzaion uste zuen, abandonatu egingo nuela, alegia.*
- ▶ *Zerbait gaizki egitearren errieta egiten diodanean jartzen didan aurpegiko ikara horrek izutu egiten nau, ezin diot ezer esan.*

- ▶ Umeak galdu duen oinarritzko konfiantza hori zuen laguntzari esker berreskuratu beharko du.
- ▶ Norbaitekin fidatzeko oinarritzko premiak —segurtasuna, batik bat— beteko direla bermatua egon behar da.
- ▶ Jakinaraziezazkiezue egin beharreko aldaketak, azter itzazue planak elkarrekin, lagun ezazue gertakariak aurreikusten.

## Gezurretan ari da ala errealitateaz bestelako kontzientzia du?

Kasu askotan, umearen bizitzako lehen urteen bereizgarria “orok balio du” eta biziraupen latza izan dira. Mundua, pertsonak, etab., etsaigozko bizipen gisa hautematen dituzenez, gure etika eta balio moralek ez dute inolako zentzurik harentzat. Egiazkoa, ona, berari gus-tatzen zaiona da, berak nahien asegari duena. Zerbait lortzeko gezurretan aritzea ohikoa da eta, posizio horretatik begiratuta, onartzeko modukoa.

Eredu horrek umea adoptatu duzuenok nahi baino luzeago iraungo du. Umeak nolabaiteko arriskua nozitzen duenean edo zerbait nahi-taez lortu behar duela sentitzen duenean ager daiteke gezurra.

- ▶ *Pairatzen ez dudan bakarra gezurra da, baina gezurra hitzetik hortzera dabil, lasai asko; behin eta berriro engainatzen nau, errietan egiten diodan arren.*
- ▶ *Saltsaren erdian harrapatzen dut askotan, bete-betean, eta hark ukatu egiten dit; egiten ikusi dudalako ez balitz, egiaz ari dela irudituko luke. Berak esandako gezurrak ere sinesten ditu, ene ustez.*

- ▶ Errealitatea asmatzen saiatzen denean, konta iezazkiozue gertakariak argi, zehazki, sendo, haserre-arrastorik (ahal dela) agertu gabe.
- ▶ Gezurra eta gehiegizko fantasia defentsazko baliabideak diren heinean, bestelako bitarteko edo jokabide alternatiboak sortu ahala desagertuko dira.



## Gauzengatiko interesik ez

Beraiek tratatuak (uste) izan ziren moduan tratatzen dituzte gauzak. Zerbaiten irrikaz eskatzen badute ere, lortutakoan ez dute berriro horren aldeko interesik agertuko.

- ▶ *Berea den guztia eman egiten du. Ez die baliorik aitortzen gauzei, berehala aspertzen da horiekin.*
- ▶ *Parkean topatzen duen aurreneko haurrari trizikloa kendu egingo dio, inolako gupidarik gabe.*
- ▶ *Etxetik txukun asko irtenda ere, eskolara zikin-zikin eginik iritsiko da.*
- ▶ *Hautsi egiten du dena, jostailuek ez dute egun bakarra ere irauten osorik, txikitu egiten ditu. Nahita edo nahigabe, ez dakit...*
- ▶ *Gauzak patioan, parkean, kalean, nonahi ahaztu egiten zaizkio. Aurten txamarra hiru aldiz galdu du.*

## Ona izatea ez da erraza, ahaleginak eginda ere

Haurrari, maiz, ona izaten gogor egingo zaio, gurasoei bera heztea bezain gogor. Auto-estimazio apala du, abandonatze-bizipenari lotua. Deus balio ez dudalako abandonatu ninduten, merezi nuen eta.

- ▶ *Esan txarrekoa da, haren gainean egon behar dugu obedituko badu; esan eta, sekula ez du betetzen agindutakoa.*
- ▶ *Asmo onekoa da baina asmo horiek gutxi irauten dute. Gaiztakeriaren bat egin, damutu egiten da, berriro horrelakorik egingo ez duela agindu eta, buelta eman orduko...*
- ▶ *Pelikulako gaiztoarena egin behar duela sinetsi du, etsi-etsian, erru guztiak haren gainera doaz, liskar guztietan agertzen da bera.*
- ▶ *Bere burua gaizto eta tontotzat dauka, besteak adina balio ez duela dio.*

## Kanpo-kontrola eta auto-kontrolaren arteko txango luzea

Auto-kontrola, tolerantzia eta satisfazio kontzeptuak beraien artean lotuak daude. Abandonatuak izan diren umeak bere burua ase ez ikustearen beldur ohi daude, beren nahiak ezin izaten dituzte kontrolatu, edozein huskeriagatik sutan jartzen dira. Frustrazioa ez dute ongi pairatzen. Gainerako umeenak baino ugariago, biziago, luzeago eta sakonagoan izan daitezke hauen haserrealdiak.

- ▶ *Sutsu-sutsua da, pentsatzeko astirik hartzeke zereginari ekin dio.*
- ▶ *Dastatu baino areago, irentsi egiten du. Gurdikada bat litxarrerria jateko gauza da.*
- ▶ *Zerbait nahi duenean, huraxe lortu arte ez da gelditzen, normahi aspertuko du tartean.*
- ▶ *Berak eskuratu nahi duen zerbaiti ezezkoa ematea ez zaio bat ere gustatzen, ez du onartze "bai, baina gero" edo horrelakorik.*
- ▶ *Eskolan ikaskideei nagusitzen zaie beti, berea egiten du den-denetan.*

## Eskolako kexa etengabeak. Etxeko lanekin bueltaka eguneroko

Umea adoptatu duten familientzat eskola da eguneroko tentsio-gune behinenetako bat. Umearen gabezia, atzerapen eta trastornoen ondoriozko zailtasunek ikaskuntzako helburu eta erritmoekin errealista izan gaitetzen digute.

- ▶ *Eskolan ez dago zer eginik, egunero etortzen zaigu kexaren bat.*
- ▶ *Dagoeneko ez dakit zer egin edo zer esan. Ondo portatzea niri ere kosta egiten zait.*
- ▶ *Irregularra da, aldabera, ez-iraunkor, bere gainean egon behar, zerbait egingo badu. Ikasitakoaz berehala ahazten da. Etekin hobeak atera litzake.*
- ▶ *Argia da, azkarra, baina zernahitan hastea kosta egiten zaio.*
- ▶ *Batzuetan, zeregin txikiak aurrera ateratzeko sekulako ahaleginak egin behar ditugu, ez du arreta ematen, ez du aditzen.*
- ▶ *Behin ere ez du etxeko lanik; nik badakit hori ez dela egia. Eguneroko borroka dugu hori ere.*
- ▶ *Eguna indarrak eta gogorik gabe hasten du; ohetik jaikitzea asko kostatzen zaio.*
- ▶ *Gauzak nonahi uzten ditu ahaztuta: liburuak, kaierak, dena eskolan uzten du.*

- ▶ Eskola-ingurunearekin koordinazio eta elkarlanerako ildoari eustea funtsezkoa da, eguneroko bizimoduan konponbideak bilatu eta zailtasunak arintzeko. Elkarlanean aritzea, funtsezkoa.
- ▶ Eskolako informazioa jasotzea, beharrezkoa balitz, egunero-egunero.
- ▶ Eskolako etekina hobetu egiten da haurraren egoera oinarri hartzen denean, helduen ikuspegitik abiatu ordez.

## Kontuz familiaz kanpoko arrazakeriarekin

Lauzpabost urte betetakotan, beste etnietako haurrak beren bereizgarriez jabetzen hasten dira eta oso litekeena da beren eguneroko bizi-moduan arraza-diskriminazioen adierazpenik nozitzea. Gurasook arrazista ez izateak ez du esan nahi zuen seme edo alabak euren gisakoek eta hirugarrenengo pertsonak eraginiko xenofobiako erreakziorik bizi ezin dezakeenik.

- ▶ *Gu ez gara arrazista... non entzun ote du beltzaran izatea txarra dela?*
- ▶ *Ama, garbi nazazu ongi-ongi, zuria izan naiz eta!*
- ▶ *Ama, ni ez naiz beltza, ezta? Ez, maitea, neskato beltzaran polit-polita zara zu.*

- ▶ Arrazakeriazko tratuak existitu egiten dira; areago, familiak horien aurrean itsuarena egiten badu, isiltzen badu edo ez badu aintzat hartzen horretaz ez mintzatzen ikasiko du umeak.
- ▶ Bere bereizgarriak onartu eta bere burua era asertiboan defenda dezan prestatu behar duzue umea.

## 4. Adoptaturiko haurra hezteko estrategiak

Atxikimendu segurua gertatzen da gurasoek umearen premia emozionalak ezagutzen dituztela frogatzen dutenean, horiei erantzunak emanez. Horrek segurantzazko oinarria ematen du haurtzaroan mundua arakatzeko eta, tristezia, antsietate edo beldurrak itota dagoenean, babesa. Besteren emozioak hautemateko gaitasunaren (enpatiaren) eta horren arabera ihardesteko funtsa da hori. Jokabide prosoziala, elkarlana, auto-kontrola, altruismoa... garatzea errazten du, gainera.

### Diziplinaz

- ▶ Arauek zehatz eta laburrak izan behar dute. “Sermoiak”, gehienez ere, hiru esakune: bestela, laugarrenerako, kritikaren eta frustrazioaren aurkako intolerantzia harrotu zaio. Zehaztu, argi eta garbi, duda izpirik gabe, zereginak eta aginduak betetzeko epeak. Adierazi argi asko zein diren lehentasunak, zertan jokatu duzuen malgu eta zertan irmo. Izan koherente arauekin eta, sesioetan ere, egon lasai.
- ▶ Araua asimilatzeke eta errealtatearekiko erlazioa egokiro mantentzeko zailtasunak dituzten arren, pixkanaka-pixkanaka arau berriak ikas ditzakete, jokamolde zaharrek eta arau zaharrek indarrean irauten badute ere. Errepikatu behin eta berriro, erritualizatu, atsotitzak balira bezala. Asmatu zigor konpontzaileak, umeak sentitzen duen erru eta auto-estimazio apaletik ateratzeko. Egunero besarkada batek jarriko du zorren kontua zeroan.
- ▶ Haserrealdia erakustean, adierazi zein den haserre piztu duen alderdi zehatza, haien burua deskalifikatu gabe: oker dagoena berak egindakoa da. “Gaiztoa zara” esan ordez, “egin duzuna gaizki dago” egokiagoa da. Haurrak ez dira gaiztoak, zenbaitetan gaiztakeriaren bat egiten dutenez, errietan egin behar izaten zaie. Ez baliatu ironia, umeak ez du ulertuko eta, gainera, mingarri gertatuko zaio.

## Auto-estimazioaz

- ▶ Umeak bakulu antzekoak beharko ditu, “urrats txikiak” emateko, laguntza huskeriak egiteko, abiarazteko, aurrera jarraitze-ko. Bere adineko gainerako umeei baino babes eta kontrol handiagoa eskatzen digute hauek. Goretsi egin behar ditugu haien lorpen txikiak eta, bekatu gabe, behin eta berriro, baloratu egiten ditugula. Gaizki portatzen direnean ere, balorazio positiboa eta onarpena eskatzen digute. Beren ego indartuko badute, baliozko sentitu behar dute beren burua. Etengabe animatu behar ditugu, produktibo eta sortzaile izan daitezen.
- ▶ Diren bezala izateko animatu behar dituzue, beren alderdi on eta txarrak onar ditzaten, besteen berdina izan nahi ez deza-ten (beren burua arbuatuta). Onar dezagun haur horien jokabide probokatzaila eta disruptiboa gorabehera zirkunstantziala dela, gaiztakeria edo esker txarrarekin ez duela zerikusirik.

## Auto-kontrolaz

- ▶ Jakin behar dugu haien ukoak, haien ihesbide eta aitzakiak, haien inguru-minguruak pairatzen, geure burua ezgai edo indar-ge agertu gabe eta beraiek deskalifikatu gabe. Gauzak behin eta berriro gogora diezazkigun eta egunero kanpoaldetik zuzen ditzagun premia dute, baina hobe haien partetik gauza handirik espero ez badugu. Haien helduak auto-kontrola daukatenak dira, baina auto-kontrol hori eskuratzen kosta egingo zaie.
- ▶ Erne ustekabeekin: zeinahi aldaketak haien mesfidantza harrotuko du, ipar-orratza galaraziz. Berari dagozkion aldaketez eman informazioa umeari behar bezain aurretiaz. Aurreikusitako eta egin umea partaidea afera horietan.

## Jakinazpena, jatorria eta historia pertsonala lantzeko

Haurrak jakin behar du adoptatua izan dela eta, horretarako, bera adopzioan hartu duten gurasoek bere historia ezagutzea, ikertzea edo sinesgarri izango den zerbait moldatzea ezinbestekoa da. Umeek, batzuetan, ez dute galderarik egiten, galde dezaketena edo galdetu behar dutena zer den ez dakitelako eta, gainera, berak adoptatu dituzten gurasoei prozesu edo historia horretako alderdi batzuk berriro bizitzea jasan ezina gertatzen zaielako. Umeek euren jatorriaz galde ez egitea ez da seinale onik.

- ▶ Galde ezazue, jaso informazioa... baina, batez ere, hitz egin iezaiezue jator beren adopzioaz, lasai, umeen eritmoari eta adin ebolutiboari egokituz.
- ▶ Umea adoptatu duzuenok adoptaturiko eta emozionalki zauritutako haur horren jatorriarekin adiskidetzen lehenak izan behar duzue, haurren izaera egokiaren mesedetan jarduteko eta, bide batez, haren izaera biologikoa zama astuna izan ez dakion.
- ▶ Moldatu kontakizunak, erritualak eta maiztasun jakin batez lan-prozedura egonkorrek jakinarazpenaz, haurrak bere historia (zangalatrau bi mundutan eraturik: lehenaldiko munduan eta orainaldikoan, hain zuzen) hobeki antola dezan.
- ▶ Umearen bizitzan, bere familia biologikoarentzat tarte emozional positiboa utzi beharra dago: hari buruz hitz egin behar zaio, bere gurasoek zergatik ezin izan zuten egokiro mantendu ulertzen lagunduz, haren situazioa eta problematikak aurreiritzirik gabe kontestualizatuz.
- ▶ Umeak, abandonatua eta kaltetua izan den heinean, nozitu duen lotsa, iraina eta mina ulertu behar duzue. Onar itzazue bidezko emozio horiek, lagundu uneari ezagutu, azaldu eta mendean hartu ditzan, bere gurasoen bizitzak eraginiko kalteak neutralizatu ahal izateko. Dena den, dosifikatu informazioa eta ez makillatu errealitatea.



## Nerabegarora iritsitakoan... zer?

- ▶ *Orain nekez kontrolatzen badut, gero, gaztetxo izatean, zer ez dugu izango?*
- ▶ *Hiraz eta nazkaz lehertzen denean ahitu egiten gaitu. Bere mingostasunak ikaratu egiten du.*
- ▶ *Kaka zaharra niri, utzi bakean, adopzioaz jardun nahi ez dudala esan dizut.*
- ▶ *Ez zarete nire ezer, ez zarete inor niri deus esateko.*

Nerabegaroa da adoptatu duten gurasoak gehien kezkatzen dituen fasea, arrazoi osoz. Etapa bihurria da denentzat, are gehiago adoptatu duten familientzat. Adoptatu den nerabeak emantzipazio bikoitza egin behar du, bere izaera bikoitza bakar batean integratzeko. Bere burua familia biologikotik eta adopzio familiaratik ere emantzipatu behar du (hein batean, berarekin identifikatua sentitzen bada ere).

Etapa honek bere-berea duen aztoramenarekin batera oso litekeena da bestelako astinaldiak ere gertatzea, hasierako abandonatze hark eta handik aurrerako gorabehera guztiek gaztetxoari utzi dioten zauri existentziala sendatzeko asmoz. Hautzaro eta nerabegaroen sostengu eta laguntza ez ezik, jakinarazpen egoki eta osoa egin bazaio eta historia osatzeko, bere nortasun biologiko eta sozial bikoitza aintzat hartzeko aukera eman bazaio eta jatorriarekin adiskidetzeko prozesuari ekin badio, nerabegaroi aurre egin ahal izango dio. Gertatzen ari dena normala da: adoptaturiko nerabearen emantzipazioa konplexu eta garestiago izaten da beti.

Hainbat arrazoi direla medio, prozesuak gelditu edo problematikoegi jazotzen badira, gaztetxoak eta gurasoak laguntzeko xedez, zerbitzu psiko-sozialetara jo behar da.

## 5. Adopzio-gurasoentzako bitartekoak

### Zaintzaileen zaintza

Porrotetatik babesean jartzeko modu bat: lortu ezinezko helmugarik ez adieraztea. Itxaropenak eskakizun errealisten bitartez jaitsi behar dituzue. Begiratu maiz erdi huts edo erdi betea dagoen botilari, lortutakoa baloratzen ikasi behar duzue eta. Adopzio-gurasoek, eskuarki, uste baino gehiago egiten dute.

Adoptaturiko seme-alaba heztea epe luzerako eginkizuna da. Zenbaitetan onartu beharra dago: alor emozionalean, zeuen seme-alaba heztean baino, epe laburrera, arrakasta gutxiago biltzen dira.

Bila itzazue atsedean hartzeko une eta guneak, gero heziketa-lanei hobeto ekiteko.

Adopziozko amatasun edo aitatasunaz gainera, bizitzan bestelako satisfazio-iturriak ere eduki behar ditugu, eskerrona bestetan ere topatuko badugu.

Epe luzera pentsatu behar denez, bitartean saritu zeuen burua, emazkiozue mimoak tarteka eta, batez ere, norberaren akatsak barkatzea osasuntsua da: horiek ez dute mundua akabatuko, konpontzeko modukoak dira.

## Irribarre eta malkoak: argi-itzalen arteko hezkuntza

- ▶ *Pazientzia galtzen dudanean arras errudun ikusten dut ene burua.*
- ▶ *Batzuetan ez dut ene burua ezagutzen, inola ere imajinatuko ez nituzkeen gauzak egina nago.*
- ▶ *Batzuetan ez dakit zer egingo niokeen....*
- ▶ *Autoritario ikusten naiz baina deskuidatzen banaiz, ziria sartuko dit eta okerrago izango da.*
- ▶ *Batzuetan, ez nuela adoptatu behar pentsatu izan dut; areago, haren aurkako higuina ere sentitu dut inoiz.*
- ▶ *Ene gurasoei kritikatu diedan huraxe bera errepikatzen ikusten dut nire burua, izugarria da.*

1. Adoptaturiko ume batekin bizitza latza izan daiteke; gauza normala da erru, higuin, neke, frustrazio, etsipen, arrabia, beldur, porrot, ziurgabetasun, oldarkortasun eta antzeko sentimenduak sortzea.
2. Erdietsitako lorpenengatiko eskerroneko une gozoak eta sekulako gainbeherak tartekatu ohi dira.
3. Hori dena normala da, adoptatzea eginkizun zaila da, sormen, pazientzia eta umore on handia behar da horretarako.
4. Adopzio-gurasoek, gurasotasun hori besteena konplexu eta problematikoa izaki, emozio horiek guztiak bizi dituztenean zerbait gaizki egiten ari direla, frakasatzen ari direla uste izaten dute.
5. Ez da horrela; ikerlanek frogatu dute adopzio-gurasoak trebe-trebeak direla eta beren seme-alabek beren bizitza normalizatzea erdiesten dutela, horretarako gainerakoek baino ahalegin handiagoak egin behar badituzte ere.
6. Bizi duten satisfazio eta eskerrona, gainera, gainditu beharreko esfortzu eta zailtasunen proportziozkoa da.

- ▶ Normalak diren sentimendu horiek gainditu ahal izateko, lehendabizi aintzat hartu eta onartu egin behar dira; ondoren sentitu, neurriz eta behar den tokian adierazi ahal izateko. Behin ere ez, behintzat, adoptaturiko umearen aurrean.
- ▶ Errepremitzea ez du inolako laguntzarik ematen.
- ▶ Horrela posible da horien aurrean defendatzea eta eraginik izan ez dadin portaeran.

## Onespena eta gaitzespenaren artean. Adopzio-gurasoak, susmagarri

- ▶ *Toki askotan kritika egin eta gaizki begiratzen digutela sentitu dugu.*
- ▶ *Gure umeei gertatzen zaienaren errua guri leporatzen omen digute.*
- ▶ *Oso zorrotza naizela diote baina sendo jartzen ez banaiz ez da giro, toreatu egiten nau.*
- ▶ *Adoptatzea modako kontua da.*

1. Aski normala da pertsona batzuek —are profesionalek ere— adoptaturiko umeen jokabide disruptiboen erruak adopzio-gurasoei leporatzea; guraso horiek umeak oker hazten dituztela eta umeen jokabideak sendotasun edo ahultasun handiegien ondorio direla uste dute, ohiko trastornoak eta egokitzeko zailtasunak alboratuta.
2. Gurasoen trebeziak noiznahi hobetu badaitezke ere, besteen esana sinestea arriskutsua da, horiek adopzioaz eskarmenturik edo ezagutza espliziturik ez dutenean.
3. Bere izaeran umeak negatibotasunik ikusiko ez badu, asertibo jardun behar da ezaugarri horren aurrean.

- ▶ Besteen aurrean geure eskubideak errespetarazi behar ditugu, besteenei eraso egin gabe.
- ▶ Gurasoek hirugarrengo pertsonekin desadostasunak agertzen dituztenean, umeak argi eta garbi jakin behar du arazoa ez dela bera.

## Auto-laguntza: ezinbesteko baliabidea

- ▶ *Hori guri bakarrik gertatzen zaigu.*
- ▶ *Gure arazoa ez dute ulertzen, ez lagunek ez senideek ere.*
- ▶ *Beste zenbait adopzio-familia ezagutu ditugu; eskerrak, ia hitzik esan gabe elkar ulertzen genuela.*

1. Adopzio-familiaren baitan gertatzen diren bizipen, emozio eta egoera batzuk zeharo ezezagunak dituzte gure inguruko pertsona gehienek; horregatik uste dute dena berdina dela, adoptaturiko seme edo alaba baten garapena beste edonorena bezalakoa dela, aurretiazko historiak (ezezaguna denez) ez duela ezer ere balio...
2. Beste adopzio-guraso batzuen eskarmentuak geure errealitatek gertuagoko kontrastea egitea bideratzen du. Bizipenen berdintasunak eraginik, nolabaiteko enpatia gertatzen da adopzio-gurasoen artean ere.
3. Nork bere bizipenak besteen aurrean kontatzean, karga arindu egiten da eta “hori guri bakarrik gertatzen zaigu” topikoa gezur hutsa dela ikusten dute.

- ▶ Auto-laguntza da adopzio-gurasoek gehien baloratzen duten baliabidea.
- ▶ Lagun eta ezagunen artean, adopzio-familiei ere toki bat egitea komeni izaten da, errealitatea kontrastatu ahal izateko.
- ▶ Beste familia batzuk badituzte gure zalantzarako erantzun eta konponbideak.

## Profesionalen laguntza

- ▶ *Laguntza eskatzen diet profesionaleri baina, ene ustez, horiek ez dute asmatzen ene haurrak duena; horietako bakoitzak gauza bat esaten dit, denek diferentea.*
- ▶ *Horietako batzuek sekulako diagnostiko eta pronostiko ikaragarriak egin dizkigute.*

1. Adopzio fenomeno berri samarra denez, adoptaturiko umeen eta adopzio-familien premiak oraino ere ez dira ezagunak.
2. Maiz, adoptaturiko umeen egoerak modu orokorrean aztertzen dira, horiek mundua ulertzeko, erreakzionatzeko eta beraien artean erlazionatzeko duten modu berezia determinatu duten bizi-prozesuak baztertuta.

- ▶ Kanpo-sostenguak presionatu behar dira, adoptaturiko umeekin ez ezik, adopzio-familiekin ere eskarmentua duten eta hurren babesean espezializaturik dauden profesionalak bilatuz.

## Batasunak, indarra. Adopzio-familien elkarteak

- ▶ *Hara, ez nekien horrelako elkarteak bazirenik ere, inork ez digu deus esan.*
- ▶ *Ez zait gustatzen adoptatzaileen elkarte bateko kide izatea, ene ustez ghetto samarrak direnez, baliteke gu arraro samarrak sentitzea; behar duguna, aitzitik, geure burua jende normalizat hartzea da.*
- ▶ *Ene salbazioa elkarteak izan da.*

1. Adopzio-familien elkarteak auto-laguntzarako baliabide eraginkorrak dira familientzat eta umeentzat ere.
2. Egun, adopzio-familiei euskarri eta laguntzak ematen aitzindari dira erakunde horiek.
3. Horien egitarauetan hurrengoak agertzen dira, besteak beste:
  - Adopzioa ardatz hartuta, horrelako gaien inguruko hitzaldiak, prestakuntzakoak eta informaziozkoak.
  - Bizipenak jorrazteko tailerrak.
  - Orientazio eta sostengu psiko-soziala, pertsona bakar, familia eta taldeentzakoak.
  - Ume eta familientzako topalekuak.
  - Dokumentazio zerbitzuak.
4. Elkarte horien helburua, umeen eta familien egoera normalizatzea eta adopzio-familien interesen alde jardutea da.

### **Ume Alaia Bizkaia**

[www.umealaia.com](http://www.umealaia.com)

Tel.: 94 615 65 25

656 797 063

e-mail: [umealaia@canal21.com](mailto:umealaia@canal21.com)

### **Ume Alaia Gipuzkoa**

[www.umealaia.com](http://www.umealaia.com)

Tel. 943 48 86 93

655 72 69 11

Fax 943 11 25 89

e-mail: [umealaia@euskalnet.net](mailto:umealaia@euskalnet.net)

### **Asaldenia Álava**

[www.asaldenia.org](http://www.asaldenia.org)

Tel. 649 829 858

### **CORA**

[www.coraenlared.org](http://www.coraenlared.org)

### **Programa Adoptia**

[www.agintzari.com](http://www.agintzari.com)

## HARTU PARTE!

